

INFO

Irakaskuntza Haurreskolak Partzuergoa

<https://irakaskuntza.lab.eus>

Araba: 689686207
haurreskolakaraba@lab.eus
Bizkaia: 666770982/666771196
haurreskolak.biz@lab.eus
i.belarrinaga@lab.eus
Gipuzkoa: 674094543/666775484
haurreskolak.gip@lab.eus
haurreskolak.gip1@lab.eus



Hezkuntza Sailak Mahai Negoziatzaile guztiak bertan behera utzi dituela salatu dugu, 2024ko Lekualdatze lehiaketa eta ordezkapen telematikoak.

Lan Hitzarmenen negoziazio mahai guztiak bertan behera utzi ditu Hezkuntza Saila

Asteartean, ekainaren 18an, LABek salatu zuen Hezkuntza Sailak bertan behera utzi dituela martxan zeuden negoziatio mahai guztiak eta ez duela Akordio Laborala bete.

Haurreskolak Partzuergoan urtarriletik maiatza bitarte lan hitzarmena negoziatzen ibili ondoren, maiatzaren 8an burutu zen azken negoziatio mahaia. Bertan, aurkeztu zen Lan Hitzarmena berriaren azken zirriborro proposamenari sindikatuok gure iritzia helarazi eta azken ekarpenak egiteko data finkatu zen. **Maiatzaren 22an bidali genizkion eta geroztik ez dugu erantzunik jaso. Orduetik ia 4 aste daramatzagu erantzunaren zain.**

Lanpostuen zerrenda eta hezitzaile finkoen leku aldatzea:

Atzo, hilak 19, Haurreskolak Partzuergoak Lanpostuen zerrendaren proposamena eta hezitzaile finkoen leku aldatzea egiteko egutegi proposamenak bidali zizkigun. Lekualdatzearen deialdia astelehenean argitaratzea proposatzen dute. Mahai negoziatzailerik egin gabe ekarpenak bidaltzeko esan digute eta egoera salatzearaz gain LABek Lanpostuen zerrendari egingo dizkion ekarpenak:

- **IRIZPIDE OROKORRA:** irekita dagoen gela bakoitzean 2 plaza. Ikasturte hasieran egiten den haurren adinaren araberako gelen eskaintzaren antolaketa koordinatzailearekin adostu eta bermatuko da.
- **Eraikinen tipologia:**
 - Eraikin desberdinetan banatuta dauden haurreskolak: eraikin bakoitza haurreskola bat izango balitz moduan hartuko dira kontuan pertsonal-horniketa doitzeko.
- **Haurreskola txikiak** (gela bakarrekoak 3-4-5 hurrekin): 2 plaza, 1 hutsik egon daiteke Lepartekoa sortzeko. Kontratazio berri honentzako, Zonaldeko atxikipenak egitekotan, ikasturte osoko atxikipenak izango dira kasu guztietan.



Irakaskuntza Haurreskolak Partzuergoa



- Taldekatze gelak: Gela hauen zailtasuna aintzat hartuta, gela hauek horniketa eta baldintza bereziak izan beharko lituzkete.
- Gela bakarreko haurreskoletan helburua ahalik eta familia gehienei zerbitzua ematea izanik, ez guke muga jarriko 0-1eko haur kopuruan. Errefortzua gehituko genioke taldekatze gela betetzean 6-4 proportzioa gaindituta.
- 2 geletako haurreskoletan:
 - 1-2 gela: beteta
 - 0-2 gela: azarora arte, 0-1ko haurrentzat 6 plaza bermatuko dira
- Herrigune eta hirigune handietan 3 geletatik gorakoetan: ikasturte hasieran ez da taldekatze gelen eskaintzarik egingo, ezta taldekatze gelarik eratuko lehenengo hiru hilabeteetan. Matrikulazioa jaso ahala adin tarte bakoitzeko gelak beteko liratekeela.

Matrikulazio kopurua kontuan hartuta, **lanpostuen zerrendan dauden 1102 lanpostuak** (1007 hezitzaile Finko + 93 Lep arteko + 2 lanpostu huts = 1102) **ez badira nahikoak ekoizpenagatik kontratazioa egin behar dute sinatu genuen akordioari jarraituz:** <https://irakaskuntza.lab.eus/jada-indarrean-dauden-akordio-bi-lortu-ditugu/>.

LABetik hezitzaileen iazko kontsolidazioa bukatu ostean Leku aldatze lehiaketa egiteko eskaera egin genuen eta horrela egingo da. Jarraian duzue eskuragarri Leku Aldatzearen araudia http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/744.pdf.

Ordezkapen telematikoak:

Bestalde, **ordezkapenak modu telematikoan banatzeko araudiaren zirriborroa bidali digute eta ekainaren bukaerara arteko epea eman digute ekarpenak egiteko.**

Gauzak horrela, osatuko den **Gobernu berriari eta Hezkuntza Sail berriari Akordio Laboralean jasotakoa eta negoziazio mahaian landu eta aurreratu diren edukietan sakontzen jarraitzea eskatzen diogu eta hitzarmenaren negoziazioaren alde egin dezan.** Hortaz, **bide hori jorratu ezean LAB sindikatuak mobilizatzen jarraituko du.**

Animo eta aurrera!

